

# Altza

## «Gure ahotsa entzunarazi behar genuen»

Zurrumbilo Altzako gazteen komunikazio taldea duela pare bat urte hasi zen lanean. Taldearen izen bereko aldizkaria kale-ratzeaz gain, beste hamaika kontu antolatu ohi dituzte altzatar gazte hauek.

Sara Soria 943-357037

Nola sortu zen Zurrumbilo antolatzeko ideia?

Miren. Duela urte pare bat auzoan gazteok hainbat koardilatan sakabanaturik geunden eta nolabait gure ahotsa entzunarazteko beharra ikusi genuen. Horretarako, hasieran zortzi orrialdeko fanzinea atera genuen. Ondoren Zurrumbilo garatuz joan zen, orrialdeak gehitu ziren, eta fanzina aldizkari bilakatu zen. Egun, 200 harpidedun inguru ditugu eta tirada 300-400 alekoa da.

Zurrumbilo Komunikazio Taldeak (ZKT) aldizkariak gain bestelako ekimenak antolatzen ditu.

Jordi. Bai, kalean ikusten dena aldizkaria da, baina Zurrumbiloren lana askoz zabalagoa da. Hainbat ekintza egiten dugu: hitzaldiak, kontzertuak, gaztetxearen aldeko manifestazioak... Horrez gain, urtean behin Gazte Topaketak antolatzen ditugu. Bertan, hiru egu-



Zurrumbiloren 6.alean II. Gazte Topaketei buruzko kronika egin dute Altza komunikazioa taldeko kideek.

nez hitzaldiak, antzerki saioak, mahai inguruak, kontzertuak, bertso afaria eta abar egiten dira. Azkenik, inguruan ditugun arazoei buruzko kezak plazaratu eta kritikoak

izaten saiatzen gara.

Laster Zurrumbiloren 6. alea kalean izango da. Zer aurrera dezakezue?

Kike. Honako ale hau

«200 harpidedun inguru ditugu egun»

monografikoa da. II. Gazte Topake-tei buruz dihardugu. Topake-ten kronika egiten saiatu gara. Gai nagusia gizarte kontrola izango da. Kontrapsikologia talde batzuek psikologiak eta psikiatriak betetzen duten kontrol sozialaren funtzioa salatzen dute. INFOPOL kasua ere hizpide izan dugu EHUKo irakasle baten eskutik. Horrez gain, Altza XXI herri ekimenak Auditx Akular proiektuaren inguruan dihardu.

Ale berria kaleratzeaz gain, zer duzue eskuartean une honetan?

K. Bai, txosna bat egiten ari gara inguruko auzoetako jaietan dirua ateratzeko. Gainera, web orrialde batean lanean ari gara. Bukatutakoan www.-altza.net web gunean egongo gara. Bestalde, arrazakeriaren inguruko hitzaldi bat eta intsumisioaren aldeko bideo emanaldia eta mahai inguruak prestatzen ari gara.

Bi urte daramatzazue Zurrumbilo aurrera ateratzen. Zeintzuk dira zuen arazo nagusiak?

J. Batetik, dirua da betiko arazoa. Bestetik, kontua da batzuetan ezin dugula nahi dugun guztia egin. Horren ondorioz, aleak atzeratu egiten zaizkigu, izan ere, aldizkaria bi hilabetean behin ateratzen da.



### Gaztetxe berria Altzan

Altzako gazteek Herreran gaztetxe berria okupatu zuten larunbatean. Bi kanporaketen ondoren, hau izan da hirugarren okupazioa. Gaztetxea Herrerako topo geltokiko etxea da eta Eusko Trenena da. Oraingoan behin betirako gaztetxea lortuko al dute!